



FUNTSEZKO SOZIETATEAK / ELKARTEAK

Fitore enpresan garrantzitsua iruditzen zaigu gure sektorearen antzekotasunak dituen enpresa batekin edo lagundu diezagukeen enpresa batekin elkartzea, gure negozioak hobeto funtziona dezan. Hori dela eta, beste enpresa batekin elkartzeak, negozio eredia optimizatzen lagundu diezaguke, hau da, gure enpresak izan ditzakeen ahulguneak indartzen lagunduko digu, horrela, gure enpresaren bertsio hoberena eta konpletoena lortu ahal izateko.

Horrez gain, aliantza horrek, arriskuak murrizten dizkigu, beste modu batera esanda, negozioaren porrota edota galera ekonomikoak sahiesten laguntzen digu, nahiz eta erabilitako baliabideetan egindako inbertsioa oso altua ez izan. Gainera, elkartuko garen enpresak sektore honetan ibilbide bat eta estatus bat duenez, gure enpresa ezagutarazten lagunduko digu, jende gehiagorengana iritsiz.

Azkenik, baliabideak eskuratzeko orduan, hainbat enpresek gurea hobeto joateko eta errazago kudeatzeko baliabideak eskaintzen dizkigute, baita guk beraiei ere. Beste modu batera esanda, guk eskeintzen ditugun baliabideak ekoizten badituzte, errazago kudeatuko dugu gure enpresaren zabalkundea merkatuan.

Bazkide eta hornitzaileak behar desberdinak dituzte. Alde batetik, hornitzaileak dirua irabaztea nahiko du eta bere jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatu beharko du. Beste aldetik, bazkideek beraien produktua kalitaztekoa edo ona izatea nahiko dute. Enpresa hau aurrera eramateko, bazkide eta hornitzaileen artean oso garrantzitsua da konfiantza izatea, batez ere, beraien artean trukaketa egiteko ezinbesteko alderdia delako.

Aliantza moten arabera elkarte mota ezberdinak sortu daitezke. Guk lehiakidea ez den beste enpresa batekin elkartzeko asmoa dugu, Coolinary Food. Gure aplikazioak, astean zeharreko dieta planifikatu ondoren, enpresa honek elikagai hauek etxera eramango lizkizuke. Beraien webgunea erabiliz beraien eskaintzen dizkiguten platerak eta menuak eskatu ahal izango ditzakezu, baina horretaz gain, zuk ere nahi dituzun platerak eskatu ahal izango dituzu, hau da, zure dieta pertsonalizatua bidali eta beraien aste guztirako eskatu dituzun platerak bidaliko dizkizute. Gure ustetan, enpresa honekin elkartuz gero gure bertsio hoberena lortuko genuke, izan ere aplikazioak aste osoko dieta prestatzeaz gain janaria etxera eramateko aukera emango lukeeleako Coolinary enpresari esker. Enpresa harentzat



FITORE

ere, salmentari dagokionez, onuragarria izango zaie gurekin elkartzea edo aliatzea, erosle gehiago lortuko dituztelako eta gure aplikazioaren bidez, platerak prestatzeko erreztasun handiagoa izango dutelako, bezero bakoitzaren dieta eskuragarri izango dutelako. Ondorioz, diru gehiago lortuko dute eta, beraien enpresa ere gehiago famatuko da.

Coolinary, gure aplikazioarekin bat datorren enpresa dela sentitzen dugu, izan ere, gure aplikazioak dituen bi arloak batzen ditu enpresa honek, planifikazioa eta elikadura. Enpresa honekin elkartuz gero, esan bezala, gure aplikazioaren bertsio onena sortuko eta eskainiko genuke. Ondorioz, aplikazioaren erabiltzaile gehiago lortuko genituzke, haien bizitza erraztu eta haien estresa murriztu ahalko genukeelako.